10

BIZKAIA ENPRESA BILERA•ENCUENTRO 2021

URTEURRENA
ANIVERSARIO

# Beaz 2021 Bizkaia

Aldaketara egokitzea
La adaptación al cambio



**Ainara Basurko**

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua
Diputada foral de Promoción Económica

# Aldaketa bat, aukera berri bat
# Un cambio, una nueva oportunidad

Asko dugu esateko aldaketei aurre egiteko moduari buruz. Digitalizazioak, ekonomia berdeak eta berrikuntza soziosanitarioak negozio- eta produktibitate-aukera berriak dakartzate. Eta balio partekatu berriak sortzeko eta berrikuntza gizarte-arazoen zerbitzura jartzeko aukera ere ematen dute.

---

Tenemos mucho que decir sobre cómo queremos afrontar los cambios. La digitalización, la economía verde y la innovación sociosanitaria conllevan nuevas oportunidades de negocio y productividad. Y representan también la oportunidad de crear nuevos valores compartidos y poner la innovación al servicio de problemáticas sociales.




Aldaketak eta eraldaketak etengabeak dira. Oinarrizko tresnetatik hasi eta azken belaunaldiko mugikorreraino, hobekuntza txikiak eragin dituzten aldaketa txiki horien eta historiaren ibilbidea betiko aldatu zuten iraultza handiak ekarri zituzten bilakaeren arrastoa jarrai dezakegu. Egokitzapena, milioika urtetan, biziraupenaren sinonimoa izan da, eta ikaskuntza berriei lotuta doanean potentzial kalkulaezinarekin frogatzen den ezaugarria da. Etorkizuna eraikitzeko beharrezkoak diren ukiezinak dira.

Eraldaketa-aldi oso nabarmena bizitzen ari gara. Esan genezake ez dagoela une hoberik tren honetara igotzeko; eta argi dago ez dela besterik egongo. Digitalizazioak, ekonomia berdeak eta berrikuntza soziosanitarioak negozio- eta produktibitate-aukera berriak dakartzate, eta merkatu eta etorkizun berriak irekitzen dituzte. Eta, aldi berean, balio partekatu berriak sortzeko eta berrikuntza gizarte-arazoen zerbitzura jartzeko aukera ematen dute, mugikortasun jasangarriagoa, ekonomia inklusiboagoa eta oparotasun banatuagoa.

Ekonomia Sustatzeko Sailetik bidaia honen parte izan nahi dugu, eta lankidetza publiko-pribatuaren bidez enpresen eta lurraldearen lehiakortasunerako eremu estrategikoetan lagundu nahi dugu. Eta proiektu zehatzez ari naiz: EIC, trantsizio energetikoan aurrera egiteko I+G+b plataforma gisa; CIE, berrikuntza irekian oinarrituta lurraldean ekintzailetza bultzatzeko, gure ekosistemaren nazioarteko irekieraren bidez; 42 Urduliz, enpresek eskatzen dituzten profil digitalen gaikuntzan eragiteko; edo NIC, silver economy delakoarekin lotutako aukera berrietan sakontzeko.

Eta, jakina, enpresa txiki eta ertainekin dugun konpromisoa indartzen jarraituko dugu, zuek baitzarete gure ekonomiaren benetako motorra. Oraindik hilabete batzuetan ziurgabetasun-egoeran murgilduta jarraituko dugu eta 2021 honetan Sailaren jarduketak foku bikoitzarekin diseinatu dira. Alde batetik, eutsi egiten diegu pandemiak larri kaltetutako sektoreei zuzendutako ekimenei, hala nola turismoari, merkataritzari edo ostalaritzari, ahal den neurrian eskaera suspertzeko eta kaudimen- eta likidezia-beharrei aurre egiteko.

Eta, beste aldetik, lehiakortasun-palanketan eragina duten ekimenak indartzen ditugu. Kritikoa da merkatu guztietako lehiakortasun-posizioari eustea eta, ahal den neurrian, hobetzea. Horretarako, dibertsifikazioko, berrikuntza teknologikoko eta ez-teknologikoko estrategien aldeko apustua egin behar da eta bide horretatik jarraitu behar da, arreta berezia digitalizazioan eta iraunkortasunean edo nazioartekotzean jarrita. Horrela, aurten 17 laguntza-programa, 21 zerbitzu eta 5 funts jarri ditugu ETEen eta pertsona ekintzaileen eskura. Argitalpen honetan bertan aurkituko dituzue. Ez izan zalantzarik eta etor zaitezte Sailera eta Beazera, aldaketa-etapa berri honi etekinik onena nola atera aztertzeko. Zuen zain gaude.

Los cambios y transformaciones son una constante. Desde las herramientas más rudimentarias hasta el móvil de última generación, podemos seguir el rastro de esa evolución de los pequeños cambios que supusieron pequeñas mejoras y las grandes revoluciones que cambiaron para siempre el curso de la Historia. La adaptación ha sido durante millones de años sinónimo de supervivencia y es una cualidad que se demuestra con un potencial incalculable cuando va unida a nuevos aprendizajes. Son los intangibles con los que se construye el futuro.

Estamos viviendo un periodo muy evidente de transformaciones. Podríamos decir que no hay mejor momento para subirse a este tren, pero lo cierto es que no habrá otro. La digitalización, la economía verde y la innovación sociosanitaria representan nuevas oportunidades de negocio y productividad, la apertura de nuevos mercados y horizontes. Y representan también la oportunidad de crear nuevos valores compartidos y de poner la innovación al servicio de problemáticas sociales, una movilidad más sostenible, una economía más inclusiva y una prosperidad mejor repartida.

Desde el Departamento de Promoción Económica queremos ser parte de este viaje y contribuir a través de la colaboración público-privada sobre ámbitos estratégicos para la competitividad de las empresas y del territorio. Y hablo de proyectos concretos: el EIC como plataforma de I+D+i para avanzar en la transición energética; el CIE para impulsar el emprendimiento en el territorio a través de la apertura internacional de nuestro ecosistema y basándonos en la innovación abierta; 42 Urduliz para incidir en la capacitación de los perfiles digitales que demandan las empresas o el NIC, para profundizar en las nuevas oportunidades vinculadas a la silver economy.

Y, por supuesto, vamos a seguir reforzando nuestro compromiso con las pymes, que sois el verdadero motor de nuestra economía. Quedan todavía algunos meses de incertidumbre y este 2021 las actuaciones del Departamento se han diseñado con un doble foco. Por un lado, mantenemos las iniciativas dirigidas a sectores seriamente afectados por la pandemia como el turismo, el comercio, o la hostelería para estimular la demanda en lo posible y hacer frente a las necesidades de solvencia y liquidez.

Y, por otro lado, fortalecemos las iniciativas de impacto en las palancas de competitividad. Es crítico mantener y en lo posible mejorar la posición competitiva en los distintos mercados y eso pasa por apostar y continuar con las estrategias de diversificación, de innovación tecnológica y no tecnológica con foco especial en la digitalización y la sostenibilidad o en la internacionalización. Así, este año ponemos a disposición de pymes y personas emprendedoras un total de 17 programas de ayudas, 21 servicios y 5 fondos. Las encontraréis en esta misma publicación. No dudéis en acudir al Departamento y a Beaz para explorar cómo sacar el mejor partido a esta nueva etapa de cambios. Os estamos esperando.

**Olatz Goitia**

Beazko zuzendari nagusia
Directora general de Beaz

# Aldaketara egokitzea
# La adaptación al cambio

**Gure mundua gero eta lurrunkorragoa, konplexuagoa eta anbiguoagoa da. Ingurunea oso azkar eraldatzen da, eta, horrekin batera, joko-arauak ere bai. Horregatik, baliagarritzat har daitekeen kudeaketa bakarra bere baitan eraldatzeko, aldaketara egokitzeko eta, are gehiago, horri aurrea hartzeko gaitasuna duena da.**

Nuestro mundo se vuelve cada vez más volátil, complejo y ambiguo. La rapidez con la que se transforma el entorno y, con él, las reglas del juego, hacen que la única gestión que puede ser considerada válida es aquella que contiene en su seno la capacidad de transformarse, de adaptarse al cambio e incluso de anticiparse a él.

Aldaketa ez da bizi garen garaiko elementu esklusiboa. Hala ere, ukaezina da gaur egungo lan- eta lanbide-merkatua duela urte batzuetakoa baino askoz zorrotzagoa, lehiakorragoa, dinamikoagoa eta gorabeheratsuagoa dela. Nahikoa da azken urteari begirada bat ematea hori egiaztatzeko.

Bizitzen ari garen aldaketa batzuk zirkunstantzialak dira, baina beste batzuk sakonagoak dira, eta geratzeko etorri dira. Horregatik, enpresa asko beren eredua eta 2021ean jarraitu beharreko estrategia birpentsatzen edo berrasmatzen ari dira.

Berriz asmatzea jarrera berri bat hartzea da, ikuspegi estrategiko berria hartzea, aurrera egitea, zailtasunak gainditzea eta, azken batean, eboluzionatzea dakarten erronkak modu operatiboan konpontzeko.

Berrikuntza hori modu estrategikoan eta holistikoan planifikatu eta landu behar da enpresen barruan, gure negozio-ereduak zalantzan jartzen dituzten kanpoko aldaketei erantzuteko gaitasunak eskuratzeaz gain, dituzten aukerak aprobetxatzeko baliabide nahikoak izateko.

Argi dago berrasmatzeak lotura estua duela berrikuntzarekin eta haren hiru driverrekin: bezero, teknologia eta negozio-ereduarekin.

Azken urte honetan bizi izan dugun egoera sozioekonomikoak aldaketa handiak eragin ditu bezeroen edo kontsumitzaileen portaeran, eta horiei irtenbide teknologikoen eta negozio-eredu berrien bidez erantzuten zaie, gehienak digitalak.

Denok entzun dugu egungo errealitateak eraldaketa digitala bizkortu duela, eta enpresek hilabeteetan aurrera egin dutela 3-5 urtetan egiteko asmoa zutenarekin.

Bizi izandako egoerak agerian utzi du digitalizazioari aurre egiteko eta bizkortzeko beharra. Eraldaketa hori ez da prozesu sektorial gisa ulertu behar; aitzitik, zeharkakoa eta sektore anitzekoa da, eta jarduera ekonomiko guztiei eta gizarte osoari eragiten die.

Beraz, erronka bikoitza dugu aurrean: digitalizazioak enpresen eta erakundeen alde eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzea eta, aldi berean, horrekin lotutako arriskuak eta desorekak arintzea. Bermatu behar da premiazko eta lehentasunezko eraldaketa hori, aldi berean, inklusiboa, jasangarria, sozialki zein finantzarioki, orekatua eta bidezkoa izatea.

El cambio no es un elemento exclusivo de la época en que vivimos. Sin embargo, es innegable que el mercado laboral y profesional en el que hoy nos movemos es mucho más exigente, competitivo, dinámico y fluctuante que el de hace unos años. Basta con echar un vistazo a este último año para comprobarlo.

Algunos de los cambios que estamos viviendo son circunstanciales, pero otros son de mayor calado, y han venido para quedarse. Por ello, muchas empresas están repensando o reinventando su modelo y la estrategia a seguir en 2021.

Reinventarse es adquirir una nueva actitud, adoptar una nueva visión estratégica para solucionar de manera operativa retos que impliquen avanzar, superar dificultades y, en definitiva, evolucionar.

Esa renovación se tiene que planificar y trabajar de forma estratégica y holística dentro de las empresas, con el propósito no solo de adquirir capacidades para responder a cambios externos que ponen en duda nuestros modelos de negocio, sino también para disponer de recursos suficientes para aprovechar las oportunidades que presentan.

Es evidente que la reinvención está estrechamente ligada a la innovación y a sus tres drivers: el cliente, la tecnología y el modelo de negocio.

La situación socioeconómica que hemos vivido en este último año ha provocado importantes cambios del comportamiento de los clientes o consumidores, a los que se da respuesta mediante soluciones tecnológicas y de nuevos modelos de negocio, mayoritariamente digitales.

Todos hemos escuchado decir que la realidad actual ha acelerado la transformación digital y que las empresas han avanzado en meses lo que pensaban hacer en 3-5 años.

La situación vivida ha evidenciado la necesidad de afrontar y acelerar la digitalización. Una transformación que no debe entenderse como un proceso sectorial, sino que tiene carácter transversal y multisectorial, afectando a todas las actividades económicas y a la sociedad en su conjunto.

Nos enfrentamos, por tanto, a un doble reto: aprovechar las oportunidades que ofrece la digitalización a favor de las empresas e instituciones y, a la vez, mitigar los riesgos y desajustes asociados a ella. Hay que garantizar que esa urgente y prioritaria transformación sea al mismo tiempo inclusiva, sostenible tanto social como financieramente, equilibrada y justa.

# Bizkaia



**Berrasmatzea lotuta dago berrikuntzarekin eta haren hiru gakoekin: bezero, teknologia eta negozio-ereduarekin.**

---

La reinvención está estrechamente ligada a la innovación y a sus tres claves: el cliente, la tecnología y el modelo de negocio.

Horregatik, premiazkoa da tresna teknologiko digitaletan oinarritutako hobekuntza-ahalbideak aprobetxatzea, ekoizpen-hazkundearen eta aurrerapen ekonomiko eta sozialaren patroi berri baten oinarriak ezartzeko.

Trantsizio ekologikoa gizarteak aurre egin beharreko beste erronka handietako bat da, eta gure enpresen etorkizuneko jarduera markatuko du.

Egoera ekonomikoa kutsadura gutxiagoko mundu bat sustatzen duten araudi-eskakizunek baldintzatzen dute, eta hor teknologia berrien eta energia-iturri alternatiboen erabilera eraginkorragoa eta produktiboagoa beharko da.

Ildo horretan, enpresetako iraunkortasuna inoiz baino nabarmenagoa da larrialdi sanitario, sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko orduan, bai negozioen bideragarritasunari eta enpleguaren jarraikortasunari dagokienez, bai kanpoan, bezeroen babesari eta gizartearekiko ekarpenari dagokienez.

Negozioa GIHekin lerrokatzeak aukera ematen du merkatu-aukera berriak identifikatzeko eta produktu berritzaileak garatzeko, stakeholderekin duten elkarreragina hobetzeko eta epe ertainean enpresa-eredu inklusiboagoetara eta jasangarriagoetara hurbiltzeko, negozioaren lehiakortasuna eta ospe korporatiboa areagotuz.

Ikusten dugu bai trantsizio digitalak bai ekologikoak aukera bihurtzen diren erronkak ekartzen dizkigutela, eta aukera horiek, aldi berean, behar bezain malguak diren antolaketa-ereduak eskatzen dituztela, berekin dakartzaten eraldaketei aurre egin ahal izateko.

Merkatuarekin erlazionatzeko modu berriei erantzuten dieten negozio-eredu berriak, bezeroekiko, hornitzaileekiko komunikazioa eta elkarrekintza, baita enpresaren ekoizpen-prozesuen barruan ere, zerumuga berriak irekitzen dituzten kanal digitalen bidez gerta daitezkeen inguruneetan.

Azken batean, enpresa erresilienteak dira, eta modu jasangarrian eboluzionatzen dute, hain aldakorra den ekonomia honek ekartzen dizkigun egoera berriei aurrea hartu ahal izateko.

Bizkaiko Foru Aldunditik aldaketa-prozesu honetan lagundu nahi diegu enpresoi, erronka horiei guztiei kaudimen handiagoz aurre egin ahal izateko laguntza-tresnak eskainiz. Laguntza horrek eraldaketa teknologikoko proiektuei, prozesuen digitalizazioari, jasangarritasunean eragina duten sistemen garapenari eta ezarpenari edo negozio-ereduen birdefinizioari ekin ahal izatea erraztuko die, etorkizunari modu lehiakorragoan aurre egiteko.

Por ello, es urgente aprovechar el potencial de mejora basado en herramientas tecnológicas digitales, para sentar las bases de un nuevo patrón de crecimiento productivo y de progreso económico y social.

La transición ecológica es otro de los grandes retos a los que la sociedad se enfrenta y que marcará la actividad futura de nuestras empresas.

El escenario económico que se dibuja viene marcado por unas exigencias normativas que fomentan un mundo con menos contaminación, en el que se impone un uso más eficiente y productivo de las nuevas tecnologías y fuentes energéticas alternativas.

En este sentido, la sostenibilidad en las empresas se hace más patente que nunca a la hora de afrontar situaciones de emergencia sanitaria, social y económica, tanto internamente, en relación con la viabilidad de los negocios y la continuidad del empleo, como externamente, en cuanto a la protección de los clientes y a la contribución con la sociedad.

Alinear el negocio con los ODS permite identificar nuevas oportunidades de mercado y desarrollar productos innovadores, mejorar su interacción con los stakeholders y converger a medio plazo hacia modelos de empresa más inclusivos y sostenibles, aumentando la competitividad del negocio y la reputación corporativa.

Vemos que tanto la transición digital como la ecológica nos presentan retos que se convierten en oportunidades que, a su vez, exigen modelos organizacionales suficientemente flexibles para poder afrontar las transformaciones que conllevan.

Nuevos modelos de negocio que respondan a las nuevas formas de relacionarse con el mercado, en entornos en los que la comunicación y la interacción con clientes, proveedores o incluso dentro de los propios procesos productivos de la empresa puedan darse a través de canales digitales que abren nuevos horizontes.

En definitiva, empresas resilientes que evolucionan de una forma sostenible para poder adelantarse a los nuevos escenarios que esta economía tan cambiante nos va presentando.

Empresas a las cuales desde la Diputación Foral de Bizkaia pretendemos acompañar en este proceso de cambio, ofreciéndoles herramientas de apoyo para poder afrontar todos estos retos con mayor solvencia. Un apoyo que les facilite poder abordar proyectos de transformación tecnológica, de digitalización de procesos, desarrollo e implantación de sistemas que incidan en su sostenibilidad o la redefinición de sus modelos de negocio para afrontar su futuro de una forma más competitiva.

# Likideziatik erresilientziara: enpresentzako etorkizuna

**Egokitzeko betebeharra erronka izan da beti enpresentzat. Pandemiak agerian utzi duena ez da aldaketak egin behar direla, azkar egin behar zaiela aurre baizik, besteak beste digitalizazioak dakartzanei. Imajinatu ezin ditugun erronka eta aukerekin harreman txikiagoa duen ekonomian sartzen ari gara eta prest egon behar dugu.**

# Desde la liquidez a la resiliencia: un horizonte para las empresas

La obligación de adaptarse siempre ha sido un reto para las empresas. La pandemia no ha evidenciado la necesidad de hacer cambios, sino la de afrontarlos con rapidez. Entre ellos los que implica la digitalización. Nos adentramos en una economía de menor contacto, con retos y oportunidades que no somos capaces de imaginar pero para los que hay que prepararse.



**Alex Rayón Jerez** ©

Nazioarteko Harremanen eta Eraldaketa Digitalaren errektoreordea - Deustuko Unibertsitatea

Vicerrector de Relaciones Internacionales y Transformación Digital - Universidad de Deusto

K. a. 550 eta 480. urteen artean jaiotako Heraklito filosofo greziarrak esan omen zuen: "Aldaketa da bizitzako etengabeko gauza bakarra". Ordurako aldaketa sakonak zetozela pentsatzen ariko ziren, noski. Uste dut harrezkero, ardo onak bezala, proposamen horren zahartzeak bere mezuaren balioa areagotu besterik ez duela egiten. Izan ere, teknologia digitalen eta sozialen berezko ezaugarriek (berehalakotasuna, azkartasuna, etena, etab.) aldaketaren etengabekotasuna bizkortzen dute.

Heraklitok burua altxatu behar izan zuen Bigarren Mundu Gerraren ondoren. Orduan, VUCA kontzeptua (Volatility, Uncertatinty, Complexity eta Ambiguity) bataiatu genuen, Gerra Hotzaren munduko agertokiaren lurrunkortasuna, ziurgabetasuna, konplexutasuna eta anbiguotasuna deskribatzen dituen akronimoa. Erakundeek eta enpresek lan egin behar izan zuten aurrez aurre bi bloke antagoniko zeuden mundu batean, eta etengabeko mehatxuen ondorioz gero eta handiagoa zen dena leher zedin arriskua. Ordutik, duela hilabete batzuk arte, akronimo hori maiz erabili da pertsonek eta erakundeek etengabe aldatzen ari den aro batean izan behar duten egokitzapena deskribatzeko.

Eta, orduan, COVID-19a iritsi zen. Ekarri duen berritasun nagusia erantzuteko eskatzen duen abiadura eta azkartasuna dela uste dut. Izan ere, pandemia hau eraldaketa digitalari dagokionez ekartzen ari den aldaketak aurrez eztabaidatu ziren. Duela hamarkada bat, finantza-krisiak eragindako Atzeraldi Handian, eta duela bi hamarkada, puntocomen krisiarekin eta deslokalizazio masiboarekin, digitalki eraldatzea ere pentsatu genuen. Oraingo berritasuna, beraz, edukia bera baino gehiago denboraren aldagaia da. 2005ean, Zygmunt Baumanek "gizarte likidoa" kontzeptua erabili zuen egitura finko tradizionalak hausten hasi ziren testuingurua deskribatzeko. Kontzeptu horretatik, geroago, batzuek enpresa likidoari buruz hitz egin zuten. Puntu horretatik, beste berri batera hurbiltzea proposatzen dut: enpresa erresilientera, egoera zailetara egokitzen denera. Hau da, "apurtzeaz" hitz egiteari utzi eta "egokitzeaz" hitz egitera pasa.

Izan ere, beharrezko egokitzapena iruditzen zait bide bakarra. 90eko hamarkadan, Internetek erosteko ohiturak aldatu zituen. Kontsumitzaileak jada ez zuen produktuaren bila joan behar; produktua harengana zetorren. Denbora-aurrezte horren ondorioz etorrri

Se le atribuye al filósofo griego Heráclito, nacido entre los años 550 a C y 480 a C aproximadamente, la frase "El cambio es lo único constante en la vida". Supongo que ya por aquel entonces estarían pensando que se avecinaban cambios profundos. Creo que desde entonces, como los buenos vinos, el envejecimiento de tal proposición no está haciendo más que revalorizar su mensaje. Y es que las propias características de las tecnologías digitales y sociales (inmediatez, rapidez, interrupción, etc.) aceleran esa constancia del cambio.

Heráclito debió levantar la cabeza tras la Segunda Guerra Mundial. Entonces, bautizamos el concepto VUCA, un acrónimo que describe la Volatilidad, Incertidumbre, Complejidad y Ambigüedad del escenario mundial de la Guerra Fría. Las organizaciones y empresas se vieron obligadas a trabajar en un mundo confrontado por dos bloques, antagónicos, y con constantes amenazas que aumentaban el riesgo de que todo volara por los aires. Desde entonces, hasta hace unos meses, se ha utilizado dicho acrónimo con cierta frecuencia para describir la necesaria adaptación que deben tener las personas y organizaciones a una era de cambio constante.

Y, entonces, llegó el COVID-19. Creo que la principal novedad que ha traído es la velocidad y rapidez de respuesta que exige. Porque, realmente, los cambios que esta pandemia está trayendo en torno a la transformación digital ya se habían discutido previamente. Hace una década, durante la Gran Recesión provocada por la crisis financiera y hace dos décadas, con la crisis de las puntocom y la deslocalización masiva, también pensamos en transformarnos digitalmente. La novedad actual, por lo tanto, es más la variable tiempo que el contenido en sí. En 2005 Zygmunt Bauman introdujo el concepto "sociedad líquida" para describir un contexto en el que se empezaban a romper las estructuras fijas tradicionales. Desde este concepto, posteriormente, algunos hablaron de la empresa líquida. Desde este punto, propongo aproximarnos a uno nuevo: la empresa resiliente, aquella que se adapta a las situaciones adversas. Es decir, dejar de hablar de "romper" y pasar a hablar de "adaptar".

Y es que la necesaria adaptación me parece el único camino. En los años 90, Internet cambió los hábitos de compra. El consumidor ya no tenía que ir a buscar el producto; el producto venía a él o ella. Ese ahorro de tiempo se tradujo en un comprador que se infor-

ziren Interneten nabigatzen asko informatzen zen eroslea, beste iritzi batzuk irakurri eta bereak utzi nahi zituen kontsumitzaile aktibo bat eta teknika tradizionalekin fidelizatzen zailagoa zen bezeroa. Pandemiak areagotu egin du fenomeno hori. Ez bakarrik mugikortasunaren murrizketengatik, baita hilabete batzuetan (urtetan agian) ohitura zaharrak berreskuratzea kostatuko zaigulako. Zentzuzkoa dirudi Internet bidezko salmentak hazten jarraituko duela pentsatzeak. Saltzen jarraitzeko, ez da nahikoa izango online denda bat irekitzea edo Amazonen egotea. Sare sozialetan ere presentzia aktiboa izan beharko da, gaur egun gizartearekiko harremanetarako identitate digital nagusia baitira. Bezeroei ohiko bisita komertzialak egin beharrean, erakusketa-espazio digitalak jarriko dira. Produktu edo zerbitzu bat errealitate birtual eta areagotuan oinarritutako inguruneekin erakusteko aukerak hazkunde handia izan dezakeela uste dut. Erabiltzaileek, beren etxeetatik, esperientzia ahalik eta gehien birsortu nahi izango dute. Bezeroak antzeman dezala zer ari zaion irakasten, horrek eragiten baitzuen benetan pandemiaren aurreko garaiko kontaktu fisikoa. Zerbait sinatzera joan behar izatea aldatuko den prozesua izan liteke. Izapide administratibo eta legaletarako pertsona baten nortasuna kontrolatzearen ordez gure burua egiaztatzeko beste sistemak erabil litezke.

Aldaketa horiek harreman gutxiagoko ekonomian barneratzen gaituzte, non edozein negoziok erronkak eta aukerak aurkituko dituen. Ingurune horretan ekintzailetzarako ehunka aukera egongo dira: bezeroa orain non dagoen, zer behar duen eta abar bakarrik pentsatu behar da. 5G estandarrak ia unean uneko komunikazioak izateko aukera ekarriko du, atzerapen-sentsaziorik gabe. Horri konputazioaren merkatzea gehitu behar diogu. Komunikazio azkarrak eta hardware merkeak hamaika aukera berri eskainiko dizkigute. Ingurunea behatzeko sentsoreak eta komunikazioak ahalbidetzeko antenak edukitzeak gure inguruko munduarekin dugun harremana oso desberdina izatea eragingo du. Ibilgailu autonomoak beren inguruarekin komunikatu ahal izango dira, hain arin non erabakietan huts egiteko aukerak murriztuko diren. Ahots-laguntzaileak (Siri, Alexa, etab.) gure eskaerari erantzuteko segundo batzuk berandutzea, iraganeko zerbait izango da. Bideokonferentzia-sistemetan betiko komunikazio-arazoak amaituko dira. Futbol-partida bat zure etxeko sofatik ikustea, estadioan zaudela sentituz, errealitate bat izango da. Presentzialtasun birtualeko hezkuntza-eskolak beti egon dira gogoan eta orain ikasleari Erasmusen egunero egoteko aukera eskain diezaiokete. Urrutiko osasunak, oraindik hainbeste muga dituenak, larrialdietarako egokiak diren erantzun- eta arreta-denbora eman dezake. Eta, horrela, imajinatu ere ezin dugun hainbat aukera.

Aldaketa sozial, ekonomiko eta teknologiko handiko garaia da, eta erritmoa ez dugu behar bezala jarraitzen. Langileen trebetasunak ez daude behar den maila teknologikora eguneratuta. Europako Batzordeak ondo daki hori: Europako helduen % 44k ez du behar adinako maila digitala daukagun mundu teknologikorako. Eta horrek, noski, ez ditu erakundeak bakarrik kezkatzen, enpresak ere kezkatzen ditu.

“Hezkuntza eta teknologiaren arteko lasterketa” (Claudia Goldin eta Larry Katz, 2008) liburuak aurrerapen teknologiko horrek kualifikazioa lehenetsiko duela azaltzen digu. Ikuspegi publiko eta pribatu batetik erreakzionatzen ez badugu, lan-merkatuaren polarizazioak desberdintasun nabarmenak ekar ditzake. Horregatik, “Gaitasun digitalen aldeko ituna” ere behar dugula uste dut.

maba mucho navegando por Internet; en un consumidor activo que quería leer otras opiniones y dejar las suyas propias; y en un cliente más difícil de fidelizar con las técnicas tradicionales. La pandemia ha acentuado este fenómeno. No solo por las restricciones de movilidad, sino también porque nos esperan unos meses (años quizás) en los que nos costará recuperar viejos hábitos. Parece así lógico pensar que la venta por Internet seguirá creciendo. Para poder seguir vendiendo, no será suficiente abrir una tienda online o estar presente en Amazon. Pasará también por tener una presencia activa en las redes sociales, principal identidad digital para la relación con la sociedad hoy en día. Las antiguas visitas comerciales a un cliente, se sustituirán por espacios de exposición digitales. La posibilidad de exponer un producto o servicio con entornos basados en realidad virtual y aumentada creo que podrán vivir un crecimiento importante. Los usuarios querrán, desde sus casas, poder recrear al máximo posible la experiencia. Que el cliente perciba lo que se le está enseñando, que es lo que realmente motivaba el contacto físico en la época anterior a la pandemia. Acercarse a tener que firmar algo, podría ser un proceso que también se transforme. El control de la identidad de una persona para trámites administrativos y legales pudiera dejar paso a sistemas donde nuestra forma de autenticarnos sea otra.

Estos cambios nos adentran en una economía de menor contacto, donde cualquier negocio encontrará retos y oportunidades. Un entorno donde habrá centenares de oportunidades de emprendimiento: solo hay que pensar en dónde está el cliente ahora, qué necesita, etc. El estándar 5G traerá la posibilidad de tener unas comunicaciones prácticamente instantáneas sin sensación de retraso. A ello, debemos sumarle el abaratamiento de la computación. Comunicaciones veloces y hardware barato nos ofrecerán un sinfín de nuevas oportunidades. Tener sensores para observar el entorno y antenas para permitir las comunicaciones, hará que nuestra relación con el mundo que nos rodea vaya a ser muy diferente. Un vehículo autónomo podrá comunicarse con su entorno a una velocidad que reducirá las probabilidades de equivocarse en sus decisiones. Que un asistente de voz (Siri, Alexa, etc.) tarde unos segundos en responder a nuestra petición será algo del pasado. Se acabarán los eternos problemas de comunicación en sistemas de videoconferencia. Ver un partido de fútbol desde el sofá de tu casa, sintiendo que estás en el estadio, una realidad. Las clases educativas de presencialidad virtual siempre han sido un deseo que podrían ahora ofrecer al estudiante estar de Erasmus prácticamente a diario. La sanidad a distancia, que tantas limitaciones tiene aún, podría ofrecer tiempos de respuesta y atención factibles para las urgencias. Y así un largo etcétera de posibilidades que ni siquiera somos capaces de imaginar.

Una época de cambios sociales, económicos y tecnológicos de gran magnitud, en la que no estamos siguiendo el ritmo como debiéramos. Las habilidades de los trabajadores no están actualizadas al nivel tecnológico que se exige. La Comisión Europea, bien lo sabe: el 44% de la población adulta europea no tiene el nivel digital suficiente para el mundo tecnológico que tenemos. Y esto, naturalmente, no solo preocupa a las instituciones, sino también a las empresas.

El libro “La carrera entre la educación y la tecnología” (Claudia Goldin y Larry Katz, 2008) nos habla sobre cómo este progreso tecnológico primará la cualificación. Si no reaccionamos desde una perspectiva pública y privada, la polarización del mercado de trabajo puede introducir unas desigualdades considerables. Por ello, creo que también precisamos un “Pacto por las competencias digitales”.







ON Bizkaia Sariek jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzeko enpresek egindako ekarpena goraipatzen dute. Ekonomia Sustatzeko Foru Sailak bultzatu eta Beazek kudeatzen dituen programen laguntza jasotzen duten proiektuak izan daitezke hautagai. 2020an, sozietate publikoaren lantalde teknikoak 893 enpresaren 1124 espediente ebaluatu zituen. Zazpi dira sarituak.

Los Premios ON Bizkaia reconocen la contribución de las empresas a la generación de actividad económica y empleo. A ellos optan pymes y personas emprendedoras cuyos proyectos han contado con el apoyo de alguno de los programas del Departamento foral de Promoción Económica en cuya gestión colabora Beaz. En 2020 el equipo técnico de la sociedad pública evaluaba 1124 expedientes de 893 empresas. Siete son las premiadas.

**BERRIKUNTZA PROIEKTU SARIA**
Flexix automobilgintzaren sektorerako kautxuzko, kautxu-metalezko eta elastomerozko produktuak diseinatzen eta fabrikatzen diharduen enpresa da. Injekzio-prozesu eta -sistemetan duen esperientzia dela eta, osagai bat sortu du merkatu-hobi berri baterako: ibilgailu astunak. Hauts-babes bat garatu dute, zikinkeria kabinatik motorrera joan ez dadin, direkzio-ardatzaren funtzionagarritasuna mantenduz eta kabinako inklinazio-mugimenduen xurgapena ekarriz. Fabrikagarritasun konplexua duen pieza horri esker, Zamudioko enpresak fakturazioa eta nazioarteko presentzia handitu ditu.
*flexix.es*

**PREMIO PROYECTO DE INNOVACIÓN**
Flexix es una empresa dedicada, desde hace más de 70 años, al diseño y fabricación de productos de caucho, caucho-metal y elastómeros para el sector de automoción. Su experiencia en procesos y sistemas de inyección le llevan a crear un componente para un nuevo nicho de mercado, el vehículo pesado. Desarrollan un guardapolvos que evita que la suciedad pase de la cabina al motor, manteniendo la funcionabilidad del eje de dirección y aportando la absorción de movimientos de inclinación de la cabina. La pieza, de compleja fabricabilidad, ha permitido a esta empresa de Zamudio incrementar su facturación y presencia internacional.
*lexix.es*

**NAZIOARTEKOTZE PROIEKTU SARIA**
Arfluk balbula industrialak diseinatu, fabrikatu eta merkaturatzen ditu sektore petrokimiko, gas, ur eta itsas sektoreetarako, besteak beste. Enpresa ertain honek nazioarteko merkatuan presentzia eta izena izatea lortu du, eta munduko proiektu energetiko garrantzitsuetan parte hartu du. Ingeniaritza sailaren sendotasuna, salmenta sare aditua eta inbertsio teknologikoa dira gakoak. 4 lantegi dituzte Espainian, Saudi Arabian, Txinan eta Indonesian, baita 9 bulego komertzial eta bazkide estrategikoak ere mundu osoan. Haren berehalako helburua Herbehereetako merkatuan sartzea da.
*arflu.com*

**PREMIO PROYECTO DE INTERNACIONALIZACIÓN**
Arflu diseña, fabrica y comercializa válvulas industriales para los sectores petroquímico, gas, agua y marino, entre otros. La empresa, de mediana envergadura, ha logrado tener presencia y nombre en el mercado internacional y ha participado en importantes proyectos energéticos en el mundo. Algo que achacan a la fortaleza de su departamento de ingeniería, su experta red de ventas y a la inversión tecnológica. Cuentan con 4 fábricas en España, Arabia Saudí, China e Indonesia; además de 9 oficinas comerciales y socios estratégicos en todo el mundo. Su objetivo inmediato es la entrada en el mercado de los Países Bajos.
*arflu.com/es*

**ENPRESEN SORKUNTZA PROIEKTU SARIA**
Eurotubos del Norte SKIDak, hodiak, presio-gordailuak eta soldadura bereziak egiten dituen enpresa gaztea da. 2018an hasi zen lanean, 20 urtetik gorako esperientzia duten profesionalek bultzatuta. Industria tradizionaletik abiatzen dira, baina egungo tekniketara eta beharretara egokitu dira, eta proiektu txikiak instalazio handietan aplikatu nahi dituzte. Bi urtetan lanpostu ugari sortu dituzte Enkarterrietan, salmenten bilakaera positiboa lortu dute, eta fakturazio-bolumena 1.3 milioi eurokoa izan da.
*eurotubosdelnorte.es*

**PREMIO PROYECTO DE CREACIÓN DE EMPRESAS**
Eurotubos del Norte es una empresa joven dedicada a la ingeniería y fabricación de SKIDS, tuberías, depósitos a presión y soldadura especial. Inicia su actividad en 2018, impulsada por profesionales con más de 20 años de experiencia. Parten de una industria tradicional, pero se adecuan a las técnicas y necesidades actuales, y buscan la aplicación de proyectos pequeños a grandes instalaciones. En dos años, crean numerosos puestos de trabajo en la comarca de Las Encartaciones, logran una evolución positiva en ventas, y un volumen de facturación de 1.3 millones €.
*eurotubosdelnorte.es*

**BIZKAIA SORTZAILEA PROIEKTU SARIA**
Guts and Love 2015ean sortu zen, gama ertain-altuko emakumeen modako jantziak diseinatu, ekoitzi eta merkaturatzeko. 2019an, bi produktu-lerro berri gehitu zituen: osagarriak eta etxeko artikuluak, bere marka-irudia –“Guts and Love unibertsoa”– indartzeko eta hazkundea sendotzeko. Proiektuak aukera eman dio katalogoa handitzeko, baina baita hornitzaile berriekin lan egiteko, bezero-segmentu desberdinetara heltzeko eta salmenta-garaia zabaltzeko ere. Enpresak bi banaketa-kanal finkatu ditu: online salmenta eta marka anitzeko dendak, eta 1.4 milioi euroko fakturazioa lortu du.
*gutsandlove.com*

**PREMIO PROYECTO BIZKAIA CREATIVA**
Guts and Love se crea en 2015 para diseñar, producir y comercializar prendas de moda femenina de gama media-alta. En 2019 decide incorporar dos nuevas líneas de producto: complementos y artículos de hogar, a fin de fortalecer su imagen de marca -el “universo Guts and Love”- y consolidar su crecimiento. El proyecto le ha permitido ampliar su catálogo, pero también trabajar con nuevos proveedores, acceder a distintos segmentos de clientes y extender la época de ventas. Hoy la empresa ha logrado consolidar dos canales de distribución: la venta online y las tiendas multimarca, y alcanzar una facturación de 1.4 millones €.
*gutsandlove.com*

**EKINTZAILETZA ETA GIZARTE BERRIKUNTZA PROIEKTU SARIA**
Bizitzen Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, gizarte-zerbitzuetakoa. Adinekoei eta haien senitarteko zaintzaileei laguntzea du helburu. 2019an Laguncare garatu zuten, zaintzaile ez-profesionalentzat pentsatutako lehen laguntzaile birtuala. Adimen artifiziala du plataformak, eta zazpi zerbitzu eskaintzen ditu: prestakuntza- eta orientazio-jarduerei laguntza psikologikoa ematea, harreman-foro bat, produktuak/zerbitzuak erosteko zerbitzu bat… Zaintzaileen tipologia beste herrialde batzuetan oso antzekoa denez, Bizitzen Laguncare nazioartean ezartzea aztertzen ari da.
*bizitzen.org*

**PREMIO PROYECTO DE EMPRENDIMIENTO E INNOVACIÓN SOCIAL**
Fundación Bizitzen es una entidad sin ánimo de lucro que trabaja en el ámbito de los servicios sociales. Su objetivo es apoyar a las personas mayores dependientes y a sus familiares cuidadores. En 2019 desarrollan Laguncare, el primer asistente virtual pensado para las personas cuidadoras no profesionales. Dotada de inteligencia artificial, la plataforma presta servicios que van desde el apoyo psicológico a las actividades de formación y orientación, pasando por un foro de relación o un servicio de compra de productos/servicios. Bizitzen se plantea la implantación internacional de Laguncare.
*bizitzen.org*

**SPIN-OFF IBILBIDE SARIA**
Label Factory Labelmarket enpresaren filial gisa jaio zen. Identifikazio, kodifikazio eta trazabilitatearekin lotutako ekipo, kontsumigarri eta LTZren banaketa komertzialean urteak eman ondoren, 2010ean produktu propio bat garatu zuen: etiketatze automatikoko ekipoak. Negozio-ildo horren arrakasta dela eta, 2014an matrizeak Label Factory sortu zuen, I+G+b eta produktu berritzaileen eta neurrirako irtenbideen fabrikazio-zentro gisa. 4.0 industriako teknologiak txertatu dituzte ekoizpen handiak eta produktibitate handia lortzeko. Bost patente ditu erregistratuta, eta erreferentea da farmazia-, kimika-, elikadura- eta edari-sektoreetan.
*labelfactory.eu*

**PREMIO TRAYECTORIA SPIN-OFF**
Label Factory nace como filial de Labelmarket, empresa que, tras años dedicada a la distribución de equipos, consumibles y SAT relacionados con la identificación, codificación y trazabilidad, en 2010 inicia el desarrollo de un producto propio: los equipos de etiquetado automático. En 2014 la matriz constituye Label Factory como centro de I+D+i y fabricación de productos innovadores y soluciones a medida. Incorporan tecnologías de industria 4.0 para poder alcanzar grandes producciones y una alta productividad. Cuenta con cinco patentes y es referente en los sectores farmacéutico, químico, y de alimentación y bebidas.
*labelfactory.eu*

**STARTUP IBILBIDE SARIA**
Satlantisek prestazio handiko kamerak garatu, fabrikatu eta merkaturatzen ditu Lurra behatzen duten mikrosateliteentzat. Enpresa EHUko Zientzia Parkean dago, eta Floridan eman zituen lehen urratsak, 2013an. Bertan, kamera horien ingeniaritza eta ekoizpen prozesuaren garapenari ekin zion. Urtebete geroago, Bizkaira etorri zen. Gaur egun, munduko liderra da kamera espazial miniaturizatuen esparruan, iSIM teknologiari esker. Japoniako JAXA agentziak 2020ko ekainean Nazioarteko Espazio Estaziora jaurtitzea funtsezkoa izan da. Haren goranzko ibilbidearen isla dira, halaber, lantaldea osatzen duten 40 pertsonak eta 6 milioitik gorako fakturazioa.
*satlantis.com*

**PREMIO TRAYECTORIA STARTUP**
Satlantis desarrolla, fabrica y comercializa cámaras de altas prestaciones para microsatélites de observación de la Tierra. La empresa, hoy instalada en el Parque Científico de la UPV/EHU, dio sus primeros pasos en Florida, en 2013. Allí inició el desarrollo de la ingeniería y el proceso productivo asociados a dichas cámaras. Un año después se traslada a Bizkaia. Hoy es líder mundial en el ámbito de las cámaras espaciales miniaturizadas gracias a la tecnología iSIM. Su lanzamiento a la Estación Espacial Internacional en junio 2020 por la agencia japonesa, JAXA, ha sido clave para su validación final. De su carrera ascendente son también reflejo las 40 personas que forman su equipo y su más de 6 millones de facturación.
*satlantis.com*

# Hamar urte
# Diez años

**Urtean behin, duela hamar urtetik, 500 pertsonak Beazek antolatzen duen Bizkaia Enpresa bileran elkartzea lehenesten dute agendan.**

---

Un día al año, desde hace diez, 500 personas priorizan en su agenda el juntarse en el encuentro Bizkaia Enpresa que organiza Beaz.




2012_ Arte Ederren Museoa / Museo de Bellas Artes




2013_ ETB. Gela Multibox / ETB. Sala Multibox




2014_ ETB. Gela Multibox / ETB. Sala Multibox




2015_ Euskalduna Jauregia / Palacio Euskalduna

Bizkaia Enpresa hamargarren urteurrenera aldaketarako gogoarekin iritsi da, baina bere muinari eutsiz. Beazek 2011n sortu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta lurraldeko enpresa eta ekintzaileen arteko lotura sendotzeko asmoz. Ideia hori oraindik ere funtsezkoa da urtero elkartzeko nahia ulertzeko. Aurrez aurre, birtualki edo bi formatuetan, oraingo honetan gertatuko den bezala.

Enpresen sorrera eta hazkundea bultzatzea dira Ekonomia Sustatzeko Sailaren eta Beazen helburuak. Zeregin horrek, funtsean, ahalbidetzeko esparru bat sortzea eskatzen du. Horretarako, ezinbestekoa da ikuspegi guztiak kontuan hartzea. Enpresak dira Sail honek sustatzen dituen foru laguntza eta zerbitzuen hartzaileak, baina laguntza eta zerbitzu horien jatorria ere badira. Haien bilakaerak eta beharrek bultzatzen gaituzte etorkizunari begira pentsatzera eta proposamen berriei heltzera.

Bizkaia Enpresa kontatzeko asmoz sortu zen, baina entzuteko gune bihurtu da. Horregatik, iraun dirau. Ez da kasualitatea hamar urte hauetan zehar lankidetzaren gaia beti presente egon izana topaketa honetan. Batzuetan espliziituki, aipu hau elkarlaneko ekosistemez hitz egiteko erabiltzen ari garenean bezala; inplizituki beti. Ez da kasualitatea, ezta ere, ekitaldiaren egituran hiru alde argi bereiztea: Aldundiaren lehentasunak partekatzea,

Bizkaia Enpresa llega a su décimo aniversario con espíritu de cambio, pero manteniendo su esencia. Creado por Beaz en 2011 con el objetivo de fortalecer el vínculo entre la Diputación Foral de Bizkaia y las empresas y personas emprendedoras del Territorio, esa idea sigue siendo clave para entender el deseo de juntarnos cada año. Presencial, virtualmente o en ambos formatos, como ocurrirá en esta ocasión.

Impulsar la creación y el crecimiento empresarial son los objetivos del Departamento de Promoción Económica y de Beaz. Una tarea que implica, esencialmente, crear un marco en el que eso sea factible. Para hacerlo es imprescindible tener en cuenta todas las perspectivas. Las empresas son las destinatarias de las ayudas y servicios forales que fomenta este Departamento, pero son también el origen de las mismas. Su evolución y sus necesidades son las que nos empujan a pensar en clave de futuro y a dar forma a nuevas propuestas.

Bizkaia Enpresa nació con voluntad de contar, pero se ha convertido en espacio de escucha. De ahí su persistencia. No es casualidad que a lo largo de esto diez años el tema de la cooperación haya estado siempre presente en este encuentro. A veces de manera explícita, como cuando dedicamos esta cita a hablar de ecosistemas colaborativos; siempre implícitamente. No es casualidad, tampoco, que en la estructura del evento se distingan tres partes claras: compartir las


2016_ BEC Bilbao Exhibition Centre


2016_ BEC Bilbao Exhibition Centre


2017_ BEC Bilbao Exhibition Centre


2017_ BEC Bilbao Exhibition Centre



2018_ BEC Bilbao Exhibition Centre



2018_ BEC Bilbao Exhibition Centre

enpresak saritzea eta gai interesgarri bati buruz elkarrekin hausnartzea. Gauza batzuei eustea gure esku dago: topaketa bera, haren sekuentzia, iraupena… Beste batzuk, eta hamargarren edizio hau horren erakusgarri argia da, aurreikusi ezinak dira. Garrantzitsuena, ordea, bizitzea tokatzen zaigun garaitik kanpo dago, eta hori da elkartzeko gonbidapen honek izango duen erantzuna. Atzera begiratzean zirrara eragiten duen zerbait badago, hori da duela hamar urtetik, urtero, 500 pertsonak erabakitzen dutela hitzordu hau beren agendan lehenestea. Tamainako erantzunaren aurrean, harridura, gogobetetasuna eta errespetua sortzen da, langa oso goi baitago. Baina, batez ere, miretsita gaude idatzi gabe dagoen Bizkaiarekiko konpromiso sendoa ikusirik. Bizkaia Egiten!

prioridades de la Diputación, premiar a las empresas y reflexionar conjuntamente sobre un tema de interés. Hay cosas que está en nuestra mano mantener, el propio encuentro, su secuencia, su duración… Hay otras, y esta décima edición lo está demostrando bien, que son imprevisibles. La más importante es, sin embargo, ajena al tiempo que nos está tocando vivir y es la respuesta que esta invitación a juntarnos va a tener. Si hay algo que impresiona al echar la vista atrás es que cada año, desde hace diez, 500 personas deciden priorizar en su agenda esta cita. Ante una reacción semejante, hay sorpresa, satisfacción, respeto ante la altura del listón, pero, sobre todo, hay admiración ante la fortaleza de un compromiso no escrito con Bizkaia. Bizkaia Egiten!

URTEURRENA
ANIVERSARIO



2019_ BEC Bilbao Exhibition Centre


2019_ BEC Bilbao Exhibition Centre


2019_ BEC Bilbao Exhibition Centre



2019_ BEC Bilbao Exhibition Centre


2020_ BEC Bilbao Exhibition Centre



















**Bizkaia Enpresa antolatzearekin batera, Beazek aldizkari bat prestatzen du, ekitaldiaren hiru gakoak islatzen dituena: instituzionala, enpresariala eta adituen iritzia. Egitea, topaketaren bi ordu azkarretan esan eta ikusi dena a posteriori eta patxadaz, birpentsatzeko modu bat da.**

En paralelo a la organización de Bizkaia Enpresa, Beaz trabaja en la elaboración de una revista en la que quedan reflejadas las tres claves del evento: la institucional, la empresarial y la opinión experta. Hacerla es una manera de invitar a repensar, a posteriori y con calma, en lo que se ha dicho y visto en las dos horas rápidas que dura el encuentro.

**Saritutako enpresak** / Empresas galardonadas

| 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|
| Ariadna Instruments | DB Iberia | CMI | Egoin |
| RDT Engineers | Protec Arisawa | Kautenik | Permar |
| Babcock Valves | Insertec | Kuaderno | Electrorecycler |
| Artesanía Graci | Relevo Videogames | Venturmoda | Cookplay |
| CAF | Gestamp Tool Hardening | ITP Externals | Irrintzi |
| Grupo Ticketbis | Dynakin | Educaedu | Lointek |
| | | | Euskal Kirol Apostuak |

| 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| Prosertek | Laip | Guivisa | Flexix |
| Power Quality Control | Pronutec | Zunibal | Arflu |
| Lookiero | The Art Of Discovery | Comalaetxea | Guts&Love |
| Sophie et voilà | Mércules | Tellmewow | BIzitzen Fundazioa |
| Fair Saturday | Ubikare | Grupo SSI | Eurotubos del Norte |
| Batz Energy | BAS | CMZ | Label Factory |
| Efeuve | Wegow | Micolet | Satlantis |






## 2020ko ekitaldia di-da
## Evento 2020 de un vistazo

2020ko otsailaren 20an Beazek Bizkaia Enpresaren 9. Bilera antolatu zuen. Aste batzuk falta ziren mundua erabat geldiaraz zedin. Atzera begira, deigarria egiten da egun hartan BECen 500 pertsona inguru elkartu izana. Harrigarria da, halaber, ekosistema kolaboratiboez hitz egiteko batu zirela, eta hori funtsezkoa izan da osasun- eta ekonomia-krisiari aurre egiteko. Pandemia bat zetorrela imajinatu gabe, baina ziurgabetasuneko testuinguru global bat aipatuz, Unai Rementeria ahaldun nagusiak enpresek, erakundeek eta gizarte osoak ditugun erronka komunei buruz hitz egin zuen eta -azpimarratu zuenez- horiei elkarrekin heldu behar diegu. Kolektibitatea, lankidetza eta koopetentzia jada duela urtebete bidea markatzen zuten ideiak dira.

El 20 de febrero 2020 Beaz organizaba el 9º encuentro Bizkaia Enpresa. Faltaban unas semanas para que el mundo se paralizara por completo. Mirando hacia atrás choca que aquel día en el BEC se reunieran medio millar de personas. Sorprende también que lo hicieron para hablar de ecosistemas colaborativos, algo que se ha revelado clave para afrontar la crisis sanitaria y económica. Sin imaginar que una pandemia se avecinaba, pero aludiendo a un contexto global de incertidumbre, el diputado general, Unai Rementeria, se dirigía a las empresas para hablarles de retos comunes del tejido empresarial, de las instituciones y del conjunto de la sociedad que debemos -recalcaba- abordar de manera conjunta. Colectividad, cooperación, coopetencia, son ideas que ya hace un año marcaban el camino.

2020ko ON Bizkaia Enpresa sarietan saritutako proiektuak eta enpresak.

Proyectos y empresas galardonadas en los Premios ON Bizkaia Enpresa 2020.

1_ Micolet
2_ Zunibal
3_ Guivisa
4_ CMZ
5_ Tellmewow
6_ Grupo SSI
7_ Comalaetxea



1



2



3



4



5



6



7














# Esker On

## **Enpresak COVID-19aren aurrean**
## Empresas frente al COVID-19

**2020ko martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu zuten. Mirespenez ikusi genuen nola, lehen aste haietatik bertatik, enpresa eta ekintzaileek beren aletxoa emateko modua bilatu zuten, COVID-19aren aurkako borrokan laguntzeko. Sektore guztietakoak, tamaina guztietakoak, oso modu desberdinetan. 20 aukeratu ditugu, baina Esker On sariak horien guztien lana aitortzen du.**

---

El 14 de marzo 2020 se declaraba el estado de alarma. Con admiración vimos cómo, desde esas primeras semanas, empresas y personas emprendedoras buscaban la manera de aportar su granito de arena en la lucha contra el COVID-19. De todos los sectores, de todos los tamaños, de maneras muy distintas. Hemos seleccionado a 20, pero el Esker On reconoce la labor de todas ellas.

### Garapen jasangarriko helburuekin lerrokatutako proiektuak

- Pobrezia-mota guztiei amaiera ematea mundu osoan.
- Bizitza osasuntsua bermatzea eta ongizatea sustatzea adin guztietan.
- Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea eta ikasteko aukerak pertsona guztiei bizitza osoan sustatzea.
- Hazkunde ekonomiko inklusiboa eta iraunkorra, enplegua eta pertsona guztientzako lan duina sustatzea.
- Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industralizazio jasangarria sustatzea eta berrikuntza bultzatzea.

### Proyectos alineados con los objetivos de desarrollo sostenible

- Poner fin a la pobreza en todas sus formas en todo el mundo.
- Garantizar una vida sana y promover el bienestar en todas las edades.
- Garantizar una educación inclusiva, equitativa y de calidad y promover oportunidades de aprendizaje durante toda la vida para todas las personas.
- Promover el crecimiento económico inclusivo y sostenible, el empleo y el trabajo decente para todas las personas.
- Construir infraestructuras resilientes, promover la industrialización sostenible y fomentar la innovación.

**Eroski**
Elorrioko kooperatibak hainbat neurri hartu zituen osasun krisiaren ondorioak arintzeko. Besteak beste, etxerik gabeko pertsonentzako arropa ematea edo, Gurutze Gorriarekin lankidetzan, zaurgarritasun-egoeran dauden 25000 familiaren elikadura-, higiene- eta garbiketa-beharrak asetzeko laguntzak.

**Runnea**
Alarma-egoeran, doako bi programa jarri zituzten herritarren eskura, ariketa sustatzeko. Bata, Runnea Training, konfinamenduaren hasieran, etxean kirola egiteko. Beste bat, aire zabaleko ariketak baimendu ondoren, “0tik korrika egiteko”.

**APlanet**
Konfinamenduaren lehen asteetatik, Community plataforman askatasunez sartzeko aukera eman zuten, horren bidez ekintza sozial komunitario zehatzak proposatzeko. Tresnak aukera ematen du, adibidez, boluntariotzako jarduerak urrutitik antolatzeko eta dohaintzak egiteko.

**Insulclock**
Insulclock plataforma Espainia osoko endokrinologia zerbitzuen eskura jari dute, doan, diabetesa duten pazienteen urruneko jarraipena errazteko.

**Bizitzen Fundazioa**
Menpekotasuna duten adinekoei eta haien senide zaintzaileei laguntzeko, Jakiten indartu zuten, laguntza emozional eta aholkularitzako telefono-zerbitzua.

**TECH Friendly**
Mapa bat egin dute zaharren egoitzetan COVID-19aren arriskua dimentsionatzeko. Mapak –sarbide librea eta doakoa– aukera ematen du datuak bistaratzeko eta deskargatzeko eta, horietan oinarrituta, erabaki operatibo eta estrategikoak hartzeko. Gainera, gida bat kaleratu dute udalei osasun-krisiari buruzko informazio garrantzitsua helarazteko.

**Ideable**
Adineko pertsonak monitorizatzeko Kwido eHealth gailuaren bidez, profesional geriatrikoen eta adineko autonomoen eskura jarri dituzte online estimulazio kognitiboko jarduera guztiak, doan.

**Kietoparao**
Alarma-egoeraren lehen egunetatik familientzako denbora-pasak oparitzen dituzte. Ekimenak izandako arrakastarengatik, telelanaren hasieran abian jarri zuten zerbitzu bat, “etxean lanean ari diren langileen ongizatea zaintzea funtsezkoa dela pentsatzen duten enpresentzat”.

**Kimet Sport**
Osasun krisiaren aurrean, futbolean espezializatutako kirol aholkularitza metodologiko honek “Kimet Yo Me Quedo En Casa” kanpaina abiarazi zuen, eskari handia duten zenbait prestakuntza mintegi oparituz.

**Kuvu**
COVID-19ak sortutako beharrak direla eta, plataforma sozial honek COVIDA app-a abiarazi zuen, adinekoei borondatezko laguntza emateko sare bat sortzeko.

**Eroski**
Varias son las medidas que la cooperativa de Elorrio tomaba para contribuir a paliar los efectos de la crisis sanitaria. Entre otras, la donación de ropa para personas sin techo o, en colaboración con Cruz Roja, ayudas para cubrir las necesidades de alimentación, higiene y limpieza de 25000 familias en situación de vulnerabilidad.

**Runnea**
Durante el estado de alarma ponen a disposición de la ciudadanía dos programas gratuitos para fomentar la práctica de ejercicio. Uno, Runnea Training, al principio del confinamiento, para hacer deporte en casa. Otro, una vez que estuvo permitido el ejercicio al aire libre, para “Correr desde 0”.

**APlanet**
Desde las primeras semanas del confinamiento permiten el acceso libre a su plataforma Community a través de la cual se pueden proponer acciones sociales comunitarias concretas. La herramienta permite, por ejemplo, organizar actividades de voluntariado en remoto y hacer donaciones.

**Insulclock**
Ponen la plataforma Insulclock a disposición de los servicios de endocrinología de todo España, de forma gratuita, para facilitar el seguimiento a distancia de pacientes con diabetes.

**Fundación Bizitzen**
Con el objetivo de apoyar a las personas mayores dependientes y a sus familiares cuidadores, y ante la multiplicación de las llamadas, refuerzan Jakiten, su servicio telefónico de apoyo emocional y asesoramiento.

**TECH Friendly**
Elaboran un mapa para dimensionar el riesgo de COVID-19 en las residencias de ancianos. El mapa -de acceso libre y gratuito- permite visualizar y descargar los datos y, basándose en ellos, tomar decisiones de carácter operativo y estratégico. Además, lanzan una guía para ayudar a los ayuntamientos a comunicar información relevante sobre la crisis sanitaria.

**Ideable**
A través de Kwido, su dispositivo de eHealth orientado a la monitorización de personas mayores, ponen a disposición de profesionales geriátricos y personas mayores autónomas, todas sus actividades de estimulación cognitiva online, de forma gratuita.

**Kietoparao**
Desde los primeros días del estado de alarma regalan pasatiempos para familias. El éxito de la iniciativa, les lleva, en los primeros compases del teletrabajo, a lanzar un servicio para empresas “que piensan que cuidar el bienestar de sus empleados que están trabajando en casa es clave”.

**Kimet Sport**
Ante la crisis sanitaria, esta consultora metodológica deportiva, especializada en fútbol, lanza la campaña “Kimet Yo Me Quedo En Casa” y regala varios de sus demandados seminarios de formación.

**Kuvu**
Las necesidades generadas por el COVID-19, llevan a esta plataforma social a lanzar COVIDA, una app cuyo objetivo es crear una red de apoyo voluntario a personas mayores.




**LabsLand**
Ikasgelak itxi ondoren, institutu eta unibertsitateei aukera eman zieten Internet bidez 14 herrialdetako benetako laborategietara doan sartzeko. Helburua zen ikaskuntza esperimentala ahalik eta gutxien etetea, laborategiko saioak funtsezkoak diren ikasgaietan.

**LabsLand**
Tras el cierre de las aulas daban la posibilidad a institutos y universidades de acceder gratuitamente, vía internet, a laboratorios reales de 14 países. El objetivo era minimizar la interrupción del aprendizaje experimental de asignaturas en las que las prácticas de laboratorio son esenciales.

**Milton Education**
2020. urte osoan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeak libreki sartu ahal izan ziren beren hezkuntza-eduki digitalen plataforman. Ikastetxe batzuk itxi zirenez, 2021eko lehen hilabeteetan ekimena luzatu dute.

**Milton Education**
Durante todo 2020 permitieron a los centros de Primaria, Segundaria y Bachiller acceder libremente a su plataforma de contenidos educativos digitales; iniciativa que, ante el cierre de algunos colegios, han prolongado en los primeros meses de 2021.

**¡Yo por ti, tú por mí!**
2020ko martxoaren 19an, hainbat ekintzailek irabazi-asmorik gabeko plataforma hau abiarazi zuten, saltoki txikiei beren kostu finkoei aurre egiten laguntzeko, itxi beharra izan ez zezaten. Produktuak eta zerbitzuak aurrez erostea proposatzen dute, bonoen bidez.

**¡Yo por ti, tú por mí!**
El 19 de marzo 2020 varios emprendedores lanzan esta plataforma sin ánimo de lucro para ayudar al pequeño comercio a hacer frente a sus costes fijos y no verse abocados al cierre. Proponen –vía bonos– la precompra de sus productos y servicios.

**Pan con Chocolate**
Beren esperientzia eta jantzigintza-tailerra erakundeen zerbitzura jarri zuten, eta, beste lan batzuen gainetik, babes handiko txabusinak eta maskarak egitea lehenetsi zuten.

**Pan con Chocolate**
Ponen su experiencia y su taller de confección al servicio de las instituciones, priorizando, por encima de otros trabajos, la realización de batas y mascarillas de alta protección.

**Espacio Open**
Ohiko jarduera bertan behera utzi zuten, larrialdietako materialaren diseinuan, 3D fabrikazioan eta banaketan arreta jartzeko. COVID-19aren aurkako estrategia biralak funtsezkoak direla sinetsita, Bizkaiko maker komunitatearen erreferentzia bihurtu ziren. Komunitate horretako 296 kidek 32 633 bisera-mota eta bestelako babes-elementuak ekoitzi zituzten.

**Espacio Open**
Aparcan su actividad habitual para centrarse en el diseño, fabricación 3D y distribución de material de emergencia. Convencidos de que contra el COVID-19 las estrategias virales son claves, se convierten en la referencia de la comunidad maker de Bizkaia, cuyos 296 integrantes llegaron a producir 32 633 viseras y otro tipo de elementos de protección.

**Abyntek**
ELISA antigorputz, proteina eta kit ugari jarri zituzten euskal teknologia-zentroen eskura, SARS-CoV-2ren aurrean konponbideak aztertu eta garatu ahal izateko.

**Abyntek**
Ponen a disposición de los centros tecnológicos vascos una amplia variedad de anticuerpos, proteínas y kits de ELISA para facilitar el estudio y el desarrollo de posibles soluciones frente al SARS-CoV-2.

**Faes Farma**
100000 litro gel hidroalkoholiko baino gehiago fabrikatu zuten, OMEk gomendatutako formulazioari jarraiki. Ekoizpenari ekiteko, enpresak dei egin zien konfinatuta zeuden langileei, gela egitera itzul zitezen. Erantzuna berehalakoa izan zen.

**Faes Farma**
Ponen en marcha la fabricación excepcional de más de 100000 litros de gel hidroalcohólico, siguiendo la formulación recomendada por la OMS. Para acometer la producción, la empresa hace un llamamiento a sus empleados, confinados, para volver a las instalaciones a elaborar el gel. La respuesta fue inmediata.

**Lantegi Batuak**
Abadiño, Sestao, Zalla eta Txibilako zentroek, automobilgintzaren sektoreko ohiko kolaboratzaileek, beren jarduera birmoldatu zuten, unean uneko beharretara egokituz. Segurtasun handiko maskarak eta arnas babeserako ekipoak fabrikatzen dituzte.

**Lantegi Batuak**
Sus centros de Abadiño, Sestao, Zalla y Txibila, colaboradores del sector de automoción, reconvierten su actividad, adaptándose a las necesidades del momento. Fabrican mascarillas de alta seguridad y equipos de protección respiratoria.

**Estudios Durero**
Komunikazio grafiko lana alde batera utzi zuten ospitaleetarako eta adinekoen zentroetarako babes-pantailak fabrikatzeko. 11000 pantaila ekoitzi, eskaini eta banatu zituzten. Ehunetan duten eskarmentuan oinarrituta, txabusina sanitario seguru, sinple eta ekonomiko bat diseinatu eta 500000 unitate fabrikatu zituzten.

**Estudios Durero**
Aparcan su actividad en el mundo de la comunicación gráfica para fabricar pantallas protectoras para hospitales y centros de mayores. Produjeron, donaron y repartieron 11000 pantallas. Su experiencia en textiles publicitarios les lleva a diseñar una bata sanitaria segura, sencilla y económica de la que se fabricaron 500000 unidades.

**Maier eta Walter Pack**
Ekoizpena egokitu zuten Osakidetzarentzat babes-biserak egiteko eta, horrela, Gurutzetako Ospitaleak egindako deiari erantzunez. Proiektuan maker komunitateak, Tknika zentro teknologikoak eta LGK Transportes Carmelok ere parte hartu dute.

**Maier y Walter Pack**
Adaptan su producción para fabricar industrialmente viseras protectoras para Osakidetza, dando así respuesta a un llamamiento del Hospital de Cruces. En el proyecto colaboraban también la comunidad maker, el centro tecnológico Tknika y LGK Transportes Carmelo.

## Gure erronketan lagun diren beste erakunde batzuk

## Otras entidades que comparten nuestros retos

**Bizkaia Talent** Bizkaiko Foru Aldundiak eta beste euskal erakunde batzuek (unibertsitateek, teknologia-zentroek eta enpresek) bultzatutako elkartea da, eta berrikuntza- eta ezagutza-prozesuan kualifikazio handia duten pertsonak erakarri, lotu eta Bizkaian atxikitzea du helburu. Hori lortzeko, nazioarteko topaketak antolatzen ditu atzerriko euskal profesionalen artean, eta zerbitzu hauek eskaintzen ditu, besteak beste: Relocation & Be Basque Dual Career Centre, profesionalen eta haien bikotekideen harrera errazteko; Talentia, unibertsitateko talentuaren garapenean zentratua; edo bitartekotza, enplegu-eskaintzak kudeatzeko. Helburu horretarako foru laguntza ekonomikoen programak ere kudeatzen ditu.

**Seed Capital Bizkaia** mota itxiko inbertsio-erakundeen sozietate kudeatzailea da eta enpresa proiektu berritzaileen garapena finantzatzen du abian jartzeko fasean, horretarako hiru kapital-arrisku funts eta SCR-Pyme bat kudeatzen ditu.

Enpresei ematen dien laguntza finantziazioaren bidez gauzatzen da eta horretarako kapital-arriskuaren ohiko tresnak erabiltzen ditu, hala nola kapitalean partaidetza hartzea edo partaidetzako maileguak.

**Bizkaia Talent** es una asociación impulsada por la Diputación Foral de Bizkaia junto con otras organizaciones vascas (universidades, centros tecnológicos y empresas), con el fin de atraer, vincular y retener en Bizkaia a personas altamente cualificadas en el proceso de innovación y conocimiento. Para conseguirlo organiza encuentros internacionales entre profesionales vascos del extranjero y ofrece servicios como Relocation & Be Basque Dual Career Centre, para facilitar la acogida de profesionales y sus parejas; Talentia, centrado en el desarrollo del talento universitario; o intermediación, para la gestión de ofertas de empleo. También gestiona programas de ayudas económicas forales destinados a ese fin.

**Seed Capital Bizkaia** es una sociedad gestora de entidades de inversión de tipo cerrado que financia el desarrollo de proyectos empresariales innovadores en su fase de puesta en marcha. Para ello gestiona tres fondos de capital riesgo y una SCR-Pyme.

En su caso, el apoyo a las empresas se articula mediante la concesión de financiación, utilizando instrumentos clásicos del capital riesgo, como la toma de participación de capital o los préstamos participativos.

Bizkaia beaz

Sabino Arana, 8
48013 Bilbao
Tel.: 944 395 622

beaz@bizkaia.eus

Informazio gehiago nahi izanez gero, mesedez ikusi

Para más información, por favor, visita

**beaz.bizkaia.eus**

Aurkituko gaituzu:
Búscanos en: